

Agosti Xahoren proposamenak euskararen ortografiaz

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

Jean-Baptiste Coyos. Agosti Xahoren proposamenak euskararen ortografiaz. Agosti Xahori omenaldia - Hommage à Augustin Chaho, Oct 2011, Donostia - Saint-Sébastien, Espainia. pp.25-38. artxibo-00903445

HAL Id: artxibo-00903445

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00903445>

Submitted on 12 Nov 2013

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Agosti Xahoren proposamenak euskararen ortografiaz

Coyos Etxebarne, Battittu¹

Agosti Xahok euskararen ortografiaz egin zituen oharra eta proposamenak aztertzen dira. Gaur egungo ortografia bateratuari konparatzen dizkiogu. Iturri ezberdin batzuk baditugu. Xahok argitaratzen zuen *Ariel* aldizkaria eta bere 1856ko *La Guerre des alphabets, règles d'orthographe euskarienne* liburua. Eranskinean Xahoren bi eskuizkributako ortografia aurkezten dira ere. Xahoren ustez arau bateratuak sortzea beharrezkoa zen, bakoitzak orduan euskara bere erara idazten baitzuen. Arauak euskalki denentzat baliagarriak izan behar zirela uste zuen.

Giltza-Hitzak: Euskararen ortografia. Agosti Xaho. Proposamenak. Ortografia bateratua. Eskuizkribu.

Dans cet article, on analyse les notes et propositions faites par Augustin Chaho sur l'orthographe de la langue basque. On les compare avec l'orthographe de la langue basque unifiée actuelle. Nous disposons de diverses sources. La revue *Ariel* que publiait Chaho et son livre *La Guerre des alphabets, règles d'orthographe euskarienne*. Dans l'annexe, également, est présentée l'orthographe de deux manuscrits. Selon Chaho, il était nécessaire de créer des normes unifiées, puisqu'en ces temps, chacun écrivait dans sa langue basque particulière. Il croyait que les normes devaient être valables pour tous les dialectes de la langue basque.

Mots-Clés : Orthographe du basque. Augustin Chaho. Propositions. Orthographe unifiée. Manuscrit.

Se analizan las notas y propuestas realizadas por Augustin Chaho sobre la ortografía del euskara. Se comparan con la ortografía del euskara unificado actual. Disponemos de diferentes fuentes. La revista *Ariel* que publicaba Chaho y su libro *La Guerre des alphabets, règles d'orthographe euskarienne*. En el anexo, igualmente, se presenta la ortografía de dos manuscritos. Según Chaho, era necesario crear normas unificadas, ya que por aquél entonces cada uno escribía en su euskara particular. Creía que las normas debían ser válidas para todos los dialectos de la lengua vasca.

Palabras Clave: Ortografía vasca. Augustin Chaho. Propuestas. Ortografía unificada. Manuscrito.

1. Iker UMR 5478. Gaztelu berria. 64100 Baiona. E-mail : jean-baptiste.coyos@orange.fr

1. SARRERA

Ikergaian sartu baino lehen ohar orokor batzuk eginen ditut, Xahoz alde batetik eta ortografiaz bestetik².

1.1. Agosti Xahoz

Agosti Xaho, ezaguna den bezala, bide-urratzaile garrantzitsua izan zen XIX. mendearen Euskal Herrian. Gu euskal letretan eta euskalgintzan ekarri zionari interesatuko gatzazkio, eta alor zabal hortan, hain zuzen, onartu behar zen euskararen ortografiari ekarri zuenari.

Ortografia bakar baten beharraz gain, euskal akademia baten beharra azpimarratzen zuen Xahok. *Ariel* astekariaren 20. zenbakian, 1845eko otsailaren 16koan hau da frantsesez idatzi zuena:

Faute d'Académie régulatrice, nos hommes instruits et le haut clergé, s'ils avaient un peu de patriotisme, devraient bien se concerter pour mettre un terme à l'anarchie qui règne dans une partie de notre littérature nationale³.

Hemen Agosti Xaho eziz eta esoterista edo aztia gisa, profeta gisa agertzen zaigu. Bere nahierak gauzatuko baitira, alde batetik 70 urte berantago, 1919an, Euskaltzaindiaren sorkuntzarekin, bestetik ortografia batuarekin hamarkada batzuk oraino berantago. Alfabetoaz, 1979ko *Euskera* 24-2ren «Euskal alfabetoaren letren izenak» ebazpena zehaztuz eta aldatuz (703-704. or.), Euskaltzaindiak 1994ean izenburu berdinarekiko «Euskal alfabetoaren letren izenak» ebazpenean euskal alfabetoa finkatu zuen (*Euskera*, 40, 1, 326. or.). Lan honetan alfabeto bateratu hori baliatuko dugu Xahoren proposamenei konparatzeko (ikus 5. lerroaldea).

1.2. Ortografia zer da? Ortografiaz eta ahoskatzeaz ohar batzuk

Erran dezagun ortografia onartu diren hizkuntza baten idazteko arauak dela. Garai hartan, orai ez bezala, euskarak ez zuen ortografiarik, denek onartzen zuten bat bederen. Idazle bakoitzak berea zuen, arau emankomun batzuk izanik ere. Iparraldekoena frantsesaren ortografiari loturik zitzaion, hegoaldekoena gaztelaniaren ortografiari.

Hizkuntzen ortografia osoki fonetikoa edo fonologikoa ez dela ezaguna da. Bainan ortografia bakoitza hizkuntzaren fonetikari hurbiltzen da edo urruntzen zaio. Dakigun bezala frantsesaren ortografia bere fonetikatik hurrun da eta zinez konplikatua⁴. Euskararena aldiz aski fonetikoa da, fonetikoagoa bederen eta sinplea. Letra batek gutxi gorabehera

2. Aipatuko ditudan testuak frantsesez idatziak ziren. Ez ditut beti euskarara itzuliko.

3. «Akademia arauemailerik ez baitugu, jaun ikasiek eta goiko elizjendeak, herriaren aldeko maitasun gutienik balute, elkar ontsa adostu beharko lukete gure nazio literaturaren partean indarrean den anarkia gelditzeko».

4. Frantsesaren adibide bat har dezagun. Frantsesez, [ete] hiru soinu lotuek adiera eta ortografia ainitz badituzte, hitz ezberdin batzuk sortuz. *été* «uda» e, t, e idazten da, pluralean *étés* e, t, e, s, *il était*

...

soinu bat, hots bat baizik ez du ordezkutzen. Eta hots bat ordezkatzeko letra bat baizik ez da. Ahoskatzea beste zerbait da, beste eremu bat. Hitzunak nahi duten bezala ahoskatzeko libre dira eta hau da gertatzen dena euskararen kasuan, euskalkien eta hizkeren ezberdinekin.

Beste ohar garrantzitsua da ortografia onartzeko den hitzarmena dela, ez besterik. Hitzarmen kolektiboa. Horri buruz aharratzea denbora galtzea da. Fransesaren ortografia zinez korapilatsua izanik ere, nehor ez da horren aurka joaten. Ortografia bat hitzarmen kolektibo bat da, idazten dutenek denek onartzen dutena.

Ohar orokor horiek egin eta goazen berriz Xahorengana eta haren aitzinekoenagana euskararen ortografiaren alorrean.

2. XAHOREN AITZINEKOAK

Xaho baino lehen, bi aitzineko izan ziren Iparraldean XIX. mendearen hastapenean euskararen ortografiari proposamenak egin zizkietenak, haren ortografia propioa uken dezan. Hegoaldean orduan gaztelaniari so egiten ebiltzen ziren oraino (Zuazo, 2005: 70).

Lehena Martin Duhalde apezka (1745-1804) izan zen bere 1809ko *Meditazioneak gei premiatsuenen gainean* liburuan. Klasikoak.armiarma.com webgunean testu osoa baduzue:

- *g* erabilten zuen beti, *gu* baztertuz [*g*] soinua idazteko;
- *qu* baztertu zuen ere *k* erabiliz e eta i aitzinean, c a, o eta u aitzinean [*k*] soinua idazteko;
- *ç* (ze hautsia) baztertu zuen ere [*s*] soinua idazteko, z erabiliz a, o eta u aitzinean eta c erabiliz e eta i aitzinean (Zuazo, 2005: 70).

Bigarren aitzinekoa Jean-Pierre Darrigol apezka (1790-1829) izan zen. Bere 1829ko *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque* liburuan bide gehiago egin zuen oraiko ortografia bakarrera. Googlek liburu hori numerizatu eta eman du Booksgoogl.fr webgunean :

- Darrigolek ere *g* erabilten zuen beti, *gu* baztertuz. « De ce que le basque n'admet pas le *g* guttural, il s'ensuit qu'il ne faut pas écrire *guiçon*, *guero*, &c., comme nous le faisons communément, mais *gíçon*, *gero* » (1829: 12. or.) ;
- Halaber *qu* (qu) eta c baztertu zituen *k* erabiliz beti, orain bezala. « Nous pourrions aussi supprimer sans inconvénient les caractères *q*, *c*, *y*... » (1829: 16. or.) ;
- Eta c eta *ç* (ze hautsia) ordezk z erabilten zuen, orain bezala ere ;

...

«zen» e, t, a, i, t idazten da, *ils étaient* «ziren» e, t, a, i, e, n, t idazten da, *était* «eskora» eraikuntzan, e, t, a, i idazten da, pluralean *étais* e, t, a, i, s, etab. Baina *étais* formak «nintzen» eta «hintzen» adierak badauzka ere bai, *j'étais* eta *tu étais* sintagmetan. Euskaraz [ete] idazteko forma bat baizik ez da: ete.

- Vren ordez *b* erabilten zuen beti ;
- [j] soinua idazteko *y* (i grekoa)-ren ordez *i* edo *j* (jota) erabilten zuen ;
- [u] soinua idazteko frantses *ou*-ren ordez *u* erabilten zuen.

Hots, Darrigolek frantsesaren ortografiaren eragina euskararen idazkeran ontsa ahultzen zuen eta euskararena asmatzen zuen. Oraingo alfabetoa, Euskaltzaindiak erabaki duena kontuan hartuz, ohartuko da Darrigolek proposatzen zituen berrikuntzak indarrean direla. Gehiago ere, harekin euskararen idaztea errazago bilakatzen zen.

Baina proposamen horiek ez ziren aho batez onartuak izan. Eta eztabaidak izan ziren *Le Messenger de Bayonne, Journal des Basses-Pyrénées et des Landes* aldizkarian, 1854ko 386, 388, 391 eta 394. zenbakietan (Zuazo, 2005: 70). Eta Xahok horietan parte hartu zuen.

3. XAHO ETA EUSKARAREN ORTOGRAFIA: ITURRIAK ETA EZTABAIDAK

Zoin dira erabili ditudan iturriak euskararen ortografiaz Xahoren ikusmoldea ulertzeko eta azaltzeko? Ikusmoldeak pluralean erran behar nezake, aldatu baitira denboran zehar.

3.1. *Ariel* astekaria

Kronologikoki lehenik *Ariel* bere astekaria. 1845ko otsailaren 16ko 20. zenbakia aipatu dugu jadanik. Bigarreanean, 1845ko irailaren 28koan, 52. zenbakian, bere helburua esplikatzeko jarraitzen da. Hau zion frantsesez:

L'orthographe des textes basques que nous insérons est critiquée un peu à la légère par ceux qui ne se rendent pas bien compte de notre but. Il s'agit d'arrêter les règles de la meilleure orthographe pour l'universalité des dialectes euskariens. Plusieurs correspondants nous ont expliqué leurs idées sur ce point, mais [...]⁵.

Aipamen horrek erakusten du harremanetan zela, bere sistema ortografikoa eztabaidatzen zuela beste idazle eta filologo batzuekin.

3.2. *Le Messenger de Bayonne* aldizkaria

Kronologian bigarren iturria *Le Messenger de Bayonne* aldizkaria da. 1856ko urtarrilaren 19koan euskararen ortografiaz Hiribarren apezarekin zuen ez adostasuna aipatzen zuen:

J'ai rendu justice, dans votre journal, à la *Grammaire* de M. Archu tout en désirant que cet estimable auteur n'eut pas adopté le nouveau système d'orthographe [...] mais ce simple désir a suffi pour provoquer la susceptibilité de M. l'abbé Hiribarren qui me déclare fièrement que si c'est comme philologue que je veux faire changer la nouvelle orthographe, je n'y réussirai pas [...].

5. «Argitaratzen ditugun euskal izkribuetako ortografiaz oso azaleko kritikak egiten dizkigute gure helburuaz zuzen jabetzen ez direnek. Gure helburua euskalki oroendako ortografia egokienaren arauen erabakitzea da. Berriemaile batzuek beren ikusmoldeak adierazi dizkigute horri buruz, baina [...]».

Argi da polemika bat bazela Hiribarrenen eta Xahoren artean.

1856ko martxoaren 23ko *Le Messenger de Bayonne*-n Antoine d'Abbadieren gutun bat badago Xahoren *Dictionnaire basque, français, espagnol et latin*-eri buruz. Proposamen batzuk egiten dizkio Abbadiek Xahori gutuna hitz horiekin bukatuz: « M. Chaho est encore à temps de faire droit à quelques-unes de nos remarques, et nous espérons, dans tous les cas, qu'il les accueillera dans l'esprit de critique bienveillante qui les a dictées », Urrugne 1856 mars 19.

Le Messenger de Bayonne-n, 1856ko azaroaren 28koan, Googlek kopiatu duen Xahoren gutun bat argitaratu da. Hortan, A. Xahok inprimategian zen Hiztegi laueleduna eta harpidedunei igorten zien *La Guerre des alphabets* aipatzen zituen: « Le compte-rendu de ces débats orthographiques serait envoyé en prime, gratis, à MM. Les Souscripteurs au Dictionnaire quadrilingue: c'est une promesse dont nous n'avons pas voulu retarder l'accomplissement (...) ».

1856ko apirilaren 3ko, 10eko eta 29ko *Le Messenger de Bayonne*-n *La guerre des Alphabets* horren « Séance de clôture » publikatua izan zen, adibidez. Eta *La Guerre des alphabets*-en bukaeran « Le compte-rendu de nos mémorables séances sera tiré à trois mille exemplaires (...) et envoyé en prime, gratis, à MM. Les Souscripteurs au Dictionnaire quadrilingue » idazten zuen.

3.3. *La Guerre des alphabets eta Dictionnaire basque, français, espagnol et latin*

Dokumentu nagusiak beraz Googlek numerizatu eta Interneten eman dituen *La Guerre des alphabets eta Dictionnaire basque, français, espagnol et latin*-en lehen zatia dira. Horiek dira baliatu ditudanak Xahoren proposamenak ortografiaz aztertzeko. Hiztegi « Introduction philologique, grammaticale et littéraire » delakoan, lehen kapitulua « Chapitre I. Règles d'orthographe et de prononciation euskarienne » deitzen da. Hau da hain zuzen interesatzen zaiguna *La Guerre des alphabets*-ekin batera.

Jean-Baptiste Daranatz XX. mendearen hastapeneko kalongeak Xahoz eta haren hiztegi azaltzen zuen (1909: 291):

Il devait donner premièrement un dictionnaire des termes introduits dans le pays basque, mais qui n'appartiennent pas proprement à la langue euskarienne (nik: Vocabulaire analogique deitu zuena). Après ce premier travail devait venir une grammaire qui aurait été suivie d'un dictionnaire des termes purement basques. M. Chaho n'a eu le temps que de publier la moitié de la première partie de l'ouvrage dont il avait conçu le plan, c'est-à-dire, la moitié du dictionnaire néologique.

Beraz, Xahok bere hiztegia ez zuen bukatzen ahal izan. Halere ortografia bat finkatu zuen lan erraldoi hori bideratzeko eta hau da gure ikergaia⁶.

6. Julien Vinson, XIX. mendearen bukaerako eta XX. mendearen hastapeneko hizkuntzalaria, ez zen batera Xahoren hiztegiaren alde: « Chaho avait eu l'idée de faire un très grand dictionnaire en quatre langues, basque, français, espagnol, latin; il n'était pas de taille à mener à bien cette entreprise, car il ignorait la phonétique, il n'entendait rien à la linguistique et il manquait complètement de méthode, mais il avait divisé l'ouvrage en deux parties, consacrées, la première aux mots étrangers, la seconde

...

Daukagun hiztegi horren hastapenaren balioaren neurketa bazter utziz, Xahoren euskararen ortografiari interesatzen gatzazkio. Eta berehala bere proposamenak aldakorak zirela ohartzen da. *La Guerre des alphabets* liburuxkan ondoko *Dictionnaire basque, français, espagnol et latin*-en baino ausartagoa agertzen da. Beraz, gibelatu zen hiztegia idazteko orduan. Bestetik, oro har, Darrigol bere ortografia aukeretan Xaho baino ausartagoa zela agertzen zaigu (ikus 6. lerroaidea).

4. LEHEN PROPOSAMENA, GARRANTZITSUENA: ORTOGRAFIA BAKAR BAT

Baina alfabetoaren letren aukera baino, ene ustez hau da Xahoren proposamen garrantzitsuena, euskarak ortografia bakar bat behar zuela, euskalki ezberdin asko izanik ere. Zoin izan behar den, hizkiz hizki, bigarren mailako puntua da, ene arabera. Euskarak ortografia bateratu bat behar zuelako aldarrikapena da, ageri da, funtsezko iradokizuna.

Arielen 20. zenbakian, 1845ko otsailaren 16koan, Xahok idatzi zuen frantsesez:

Nous essaierons de prouver que tous les livres basques imprimés jusqu'ici ont une orthographe vicieuse et barbare. Celle que nous proposons est applicable à la variété de tous les dialectes euskariens⁷.

Euskararen ezberdintasuna, euskalkien errealitatea ez zuen baztertzen. Ezberdintasuna onartzen zuen eta hori argia da. 1856ko *La Guerre des alphabets...*-n hau da idazten zuena 12. orrialdean:

Maintenant que le Navarro-Souletin dise zakitzat à l'impératif, le Labourdin zazkiat, le Guipuzcoan zakizkit, le Biscayen zakidaz, etc. peu importe: la richesse et la variété des dialectes euskariens ne doit changer en rien l'unité et la régularité de l'orthographe nationale⁸.

Horiek dira ezaugarri garrantzitsuenak Xahoren ustez: batasuna eta erregulartasuna. Hortan biziki modernoa da. Bigarren ezaugarria noski, erregulartasuna, ortografiari oinarritzeko ezaugarria izan behar da, horren ikastea eta ondotik idazkera errazteko. Lehena, batasuna, beharrezkoa da irakaskuntzan, bizi publikoko idazkietan, baita ere irakurketan edo idazketan algar ulertzeko, komunikazio idatzia sinplifikatzeko.

Eta hau da orain denek onartu dugula Euskaltzaindiaren ondotik, berezitasun guti batzuk emanez halere euskalki zorbaiten ortografiari. Ezagunena, behar bada, *ü*, «*u*» gehi trema, da zubereraren [y] fonema idazteko.

...

aux mots originaux. Il a même publié la moitié de la première partie jusqu'au mot mantelina; c'est une série de dissertations fantaisistes, d'explications bizarres, d'hypothèses aventureuses, mais ce qui est remarquable, c'est le grand nombre de mots qu'il a oubliés, par exemple, bake, «paix» (pacem) lakhet, «agréable». (placet), lore «fleur» (flore) etc. ». « Spécimen d'un Dictionnaire raisonné » <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/13/13156157.pdf>.

7. «Orain arte inprimatu diren liburu euskaldun denetako ortografia okerra eta baldarra dela erakusten ahaleginen dugu. Guk proposatzen dugunak euskalki denen ezberdintasunerako balio du».
8. «Nafar-zuberotarrean aginteran *zakitzat* izan dadin, lapurtarrean *zazkiat*, giputzean *zakizkit*, bizkaitarrean *zakidaz*, ez da inporta: euskalkien aberastasunak eta ezberdintasunak ez du deus aldatu behar gure ortografia nazionalaren batasunean eta erregulartasunean».

5. ORAIKO ALFABETOAREN LETRAK ETA HAIEN IZENAK

Xahoren beste proposamenak ikusi baino lehen zein da oraingo euskal alfabetoa? Euskaltzaindiak 1994ko azaroaren 25ean erabaki zuen eta bere 17. arauan bildu zuenaren arabera, euskal alfabetoa 27 letraz osatua da. Zerrenda 1995eko *Euskera* aldizkarian 40. liburukian, 1, 326. orrialdean agertu zen «Euskal alfabetoaren letren izenak» izenburuarekin.

Hizkiak horiek dira:

**A, B, C, Ç, D, E, F, G, H, I, J, K, L, M, N, Ñ, O, P, Q,
R, S, T, U, V, W, X, Y, Z**

Euskaltzaindiak dio:

Letra hauetatik c eta honen aldaera ç (c hautsia), q, v, w eta y, ohiko euskal hitzak idazteko erabiltzen ez diren arren, kanpotar izenak transkribatzeko beharrezkoak direlarik, euskal alfabetoan. (*Euskera*, 1995: 113 ala 326).

Hortan Xahoren ikusmoldea berdina zen. Hori da, adibidez, *Dictionnaire basque, français, espagnol et latin*-en lehen kapituluaren x hizkiak idatzi zuena: « ...il devient à peu près impossible d'abandonner le X. (...) parce que personne ne nous a encore trouvé le moyen d'écrire sans X en euskarien, Xacca, Xantipe, Xavier... » (4. or.).

Euskal alfabetoaren letrak eta haien letren izenak (Euskaltzaindia):

Letra	Izena	Letra	Izena
<u>a</u>	a	<u>ñ</u>	ene
<u>b</u>	be	<u>ñ</u>	eñe
<u>c</u>	ze* eta ç [ze hautsia*])	<u>o</u>	o
<u>d</u>	de	<u>p</u>	pe
<u>e</u>	e	<u>q</u>	ku*
<u>f</u>	e fe	<u>r</u>	erre
<u>g</u>	ge	<u>s</u>	ese
<u>h</u>	hatxe	<u>t</u>	te
<u>i</u>	i	<u>u</u>	u
<u>j</u>	jota	<u>v</u>	uve*
<u>k</u>	ka	<u>w</u>	uve bikoitza*
<u>l</u>	ele	<u>x</u>	ixa
<u>m</u>	eme	<u>y</u>	i grekoa*
		<u>z</u>	zeta

6. XAHOREN BESTE PROPOSAMENAK: ZEIN HIZKI ERABILI?

6.1. *La Guerre des alphabets. Règles d'orthographe euskarienne adoptées pour la publication du dictionnaire basque, français, espagnol et latin*

Has gaitezen testu aski luze horrekin. 17 orrialde ditu 3 zutabetan idatzia (Google books). Letren arteko gerla baten moduan bere ikusmoldeak aurkezten ditu: « Il s'agit de rechercher les règles d'un système d'orthographe euskarienne grammaticalement irréprochable, au moyen d'une petite guerre déclarée entre plusieurs alphabets » erraten digu (1. or.).

Hizki bakoitzak bere burua defenditzen du euskararen alfabetoan egoteko edo onartu izateko. Baina Xahoren azalpenak ez dira beti argi, umorea eta errudizio filologikoa nahasi nahi baititu. Era batez hiztegi laueledunaz oin-oharrear eman den Vinsonen ikusmoldearekin ados niz, Xahok euskalkiak eta ahoskera ezagutzen baldin bazituen ere. Hitzak idazteko, horien etimologia baliatu nahi zuen Xahok. Jatorrizko hizkuntzetako ortografia ere. Gainera, bere ortografia justifikatzeko proposatzen zuen hitzen etimologia aski fantasiatsua. Eta azken finean bere hautuak konplexuak dira, korapilatsuak, eta salbuespen asko onartu behar ditu.

Adibide bat baizik, 16. orrialdean. *Jende* hitza *gente* idatzi nahi du, *g* batekin:

J'arrive tout naturellement au *g* [...]. Est-il raisonnable de faire comme le critique [Antoine d'Abbadie hain zuzen], et de donner au *g* devant *e* et *i*, l'articulation gutturale du gamma grec ; d'écrire *gizon*, au lieu de *guizon* [*gu* beraz]? Darrigol était de cet avis [...]. L'opinion de Darrigol et celle des Labourdins qui pensent encore comme lui, est précisément la seule qui ne puisse faire autorité [...]. Que le Labourdin écrive *iende*, *yende* ; on tiendra compte de cet usage dans le classement alphabétique du Dictionnaire national [bere hiztegia] [...] mais le latin gens ayant pour radical classique *genere*, *gignere*, engendrer, enfanter, pourquoi le critique recommande-t-il de changer cette orthographe irréprochable et consacrée par l'étymologie latine? [...]. Ou bien il écrirait *jente*, aux dépens de l'orthographe étymologique: triste innovation !

Ondorioz arau argi eta bakun bat erabili baino, *g* hizkiari bi soinu ematen dizkio, [*g*] eta [*j*].

Hots, testua interesgarria da alderdi literarioarengatik, umorearengatik, Xahoren errudizioa erakusten baitu. Baina bere balio zientifikoa ez da hain gora, eta Darrigolen proposamenei konparatuz Xahorenak ez dira lehenak bezain argi eta ausartak.

6.2. *Dictionnaire basque, français, espagnol et latin Chapitre I. Règles d'orthographe et de prononciation euskarienne*

Bukatzeko so egin dezagun Xahoren hiztegian zoin ziren hautu ortografikoak. Kronologikoki azkenak ziren. Hiztegia ez zuen bururatzin ahal izan. Halere hiztegiaren lehen zatia, « Introduction philologique, grammaticale et littéraire » deitzen dena, « Chapitre I. Règles d'orthographe et de prononciation euskarienne » atalarekin hasten da. Bere ortografia hautaketak azaltzen ditu.

Hasteko frantses, espainol eta euskal alfabetoak konparatzen ditu. Ondotik, euskararena ematen du. Bere ustez 28 letra ditu. « L'alphabet basque est ou devrait être composé des lettres suivantes » (3. or.):

A B C CH D E F G H I J K L LL M
N Ñ O P Q R S T U V X Y Z

Hona bi adibide Xahoren hautatzeko irizpideak erakusteko:

Darrigol, dans sa dissertation critique et apologétique sur l'euskarien, avoue que les Basques n'ayant aucune articulation qui corresponde au V, cette lettre ne doit pas faire partie de notre alphabet. La suppression est admissible comme règle générale ; mais l'orthographe étymologique permet l'exception. (3. or.)

Eta beraz salbuespen batzuetako v hizkia begiratzen du. Beste adibidea c hizkiaz:

Darrigol dit que nous pourrions aussi supprimer le C, parce qu'il n'a aucun son qui ne puisse être représenté par le K ou le Z (zeta). Mais alors, dans plusieurs mots qui méritent d'être conservés, qu'ils soient ou non d'origine latine, nous ne pourrions plus écrire *bendiciño*, bénédiction, *comuniño*, communion... avec les Biscayens. Mais comment ferons-nous dans le dialecte navarrais qui dit, selon la prononciation latine, *benediccione*, au lieu de *bendiciño*? (4. or.)

Laburbilduz, bere ortografia finkatu nahian, euskalki denen ahoskera kontuan hartu nahi luke eta azkenean salbuespenetan galtzen da.

Badakigu Darrigolen ikusmoldeak irabazi duela. Orain *benedizione* badugu, z batekin, batuazko *benedikapen*-en ondoan, halaber *komunio* batuaz eta *komunione* Iparraldean. Hots z eta k-rekin hitz denak horiek idatz ditzakegu.

Antoine d'Abbadiek ere 1856ko martxoaren 23ko *Le Messenger de Bayonne*-n idatzen zuen: « Il est certainement à regretter que M. Chaho emploie simultanément le c et le k ».

Laburbilduz erran genezake Xahoren ekarpena aski ezberdina dela euskararen ortografiaren kasuan. Alde batetik biziki ontsa azpimarratu eta defendatu du ortografia bakar baten beharrezkotasuna. Jarrera horretan zinez gaur egungoa zen. Baina xehetasunetan sartuz, arauemaile gisa, ez zen hain emankor izan. Darrigolen ekarpena garrantzitsuagoa izan zen, sinpleago eta argiago baitzen, ene ustez bederen.

7. BIBLIOGRAFIA

CHAHO, Augustin. *Ariel, Courrier des Pyrénées, Journal international, scientifique, artistique et littéraire*, 1845-02-16, 1845-09-28.

—. *Le Messenger de Bayonne, Journal des Basses-Pyrénées et des Landes*, 1854-01-19, 1854-11-28, 1856-03-23, 1856-04-03, 1856-04-10, 1856-04-29, 1856-12-06.

—. *La Guerre des alphabets. Règles d'orthographe euskarienne, adoptées pour la publication du dictionnaire basque, français, espagnol et latin*, Baiona: P. Lespès, 1856 (Google books).

DARANATZ, Jean-Baptiste. A propos d'une lettre inédite d'Augustin Chaho, *Revue Internationale des Études Basques*, III, 1909; 286-292 or. www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/03/03286292.pdf

DARRIGOL, Jean-Pierre. *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*, Baiona: Imprimerie de Duhart-Fauvet, 1829 (Google books).

DUHALDE, Martin. *Meditazioneak gei premiatsuenen gainean*, Baiona: Cluzeau frères, 1809, <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/D/DuhaldeMeditazioneak.htm>

EUSKALTZAINDIA. Euskal alfabetoaren letren izenak, *Euskera*, Bilbo: Euskaltzaindia, 1979, 24, 2; 703-704. or.

—. Euskal alfabetoaren letren izenak, *Euskera*, Bilbo: Euskaltzaindia, 1995, 40, 1; 326. or.

URKIZU, Patri. *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak: (1811-1858)*, Bilbo: Euskaltzaindia, 1992; 98 or.

—. *Agosti Chahoren kantutegia 1844-1855*, Zarautz: Susa, 2006, 275 or.

VINSON, Julien. « Spécimen d'un Dictionnaire raisonné », datarik gabe, <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/13/13156157.pdf>

ZUAZO, Koldo. *Euskara batua Ezina ekinez egina*, Donostia: Elkar, 2005; 274 or.

8. ERANSKINAK

Agosti Xahoren bi Zuberoako kantu eskuizkriburen ortografiaren analisi laburra proposatzen dugu⁹. Ikus jatorrizko dokumentuak beheago.

Lehen zutabearen soinua ematen da alfabeto fonetikoaren arabera. Bigarrenean Xahoren hizkia edo hizki taldea adibide bat edo birekin; ohartzen da Xahoren ortografia ez dela osoki egonkorra, adibidez ber orrialdean *zoure* idatzen du, « zure », baina *zuri*, « zuri », lerro batzuk gorago. Hirugarren zutabearen oraingo hizkia ematen da, Euskaltzaindiaren ortografia bateratuan.

9. Eskerrik hanitx Mauleko Sü Aziaren elkarteari bi orrialde eskanerizatu horiek eman baitizkit.

8.1. Bortu goretan (Urkizu, *Borthü goretan*, 2006: 179-180¹⁰)

Fonetika: Soinua	Xaho	Euskaltzaindia
[y]	u: <i>mintzo nuzu, baina deüs</i>	ü
[u]	ou: <i>zoure, baina zuri</i>	u
[ɛj]	eï: <i>erran neizun, ukheïtia</i>	ei
[t ^h]	th: <i>sarthu</i>	t
[k ^h]	kh: <i>khantari, ukhenen</i>	k
[g ^h]	gh: <i>ghero, erregheren</i>	g
[ʃ]	ch: <i>chori</i>	x
[tʃ]	tch: <i>tchori</i>	tx
[ʒ]	g: <i>eigerra</i>	j
[s]	s: <i>oros</i>	z
[z]	s: <i>plaseraren, baina plazerak</i>	z

10. Patri Urkizuren *Agosti Chahoren kantutegia* liburuaren eta eskuizkribuetako bertsiok ez dira osoki berdinak.

42.

80

Portu gortan eor tchori Ksantari,
 Kounfolio deuta mintzo nuru Luri
 Orran nüzun Diata aspaltü,
 Gomenda xintian mäite herribati
 Omäizula ukhenen, etdi ezarun ingoiti,

Ah, tchori eigerre, Ksantari mäite
 Poete vrotan gäinti psare gale zira
 etla benuke niki Desir handia
 Omi Kaloian zure ukhütia
 Koumpli ahal banega plaseraren tuivria

Ataria Deberätüren, horriç segurta zite
 Nahi zuren lezala izanen zira
 Zer ore beützu, zuk desiratzen
 Orozaz ziraue kouplitu izanen,
 Euekita zireno etzäizu deis manñaren.

Promedak eor tuzu ezinago habero
 Pa benturaz feitak ezinago gäite
 Omusu ez nahi, mi zuri fütatu
 Zeren ghero bestela ezpeitate ordu
 etoz ere beüzate zure Kaloian Santto.

Orrigheren Kaloietan chori kardinate
 Zimbora oros haiök Ksantatzen Desie
 Presuner miagoru, leghirari gale
 Eue gaste lagunik Kitatu benäie
 Atio, ene platerak oro jouan ziraie

=====

8.2. Ene izar ederra (Izar bat jeltiten da Aspaldiko denboretan) (Urkizu, *Ene izar ederra*, 2006: 186-186)

Fonetika: Soinua	Xaho	Euskaltzaindia
[y]	u: <i>behar dut</i>	ü
[u]	ou: <i>noun</i>	u
[aj]	aï: <i>laïte</i>	ai
[ɛj]	eï: <i>eihargarri</i>	ei
[tʰ]	th: <i>othe, thunba</i>	t
[kʰ]	kh: <i>ikhousi, khorpitz</i>	k
[gʰ]	gh: <i>eghiteko, arghizaghi</i>	g
[ʃ]	ch: <i>charmantak</i>	x
[tʃ]	tch: <i>tcherkara</i>	tx
[s]	s: <i>esta, baina dizut</i>	z

Ematen dugun orrialde honetan kantuaren azken bi lerroak falta dira.

